

# GEO PAR KEA

EUSKAL KOSTALDEA · COSTA VASCA

## JARDUERA MEMORIA 2023 EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA



<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1. ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA</b>	<b>4</b>
<b>ZKH.1. Ikerketa eta dibulgazioa Geologia eta Lurraren Zientziak oro har</b>	<b>4</b>
1.1.1. Biodibertsitatearen gida ilustratua	4
1.1.2. Geologia interesguneen inbentarioa	4
1.1.3. Ikerketa-programa	5
1.1.4. Dibulgazioa: argitalpenak, formakuntzak	6
<b>ZKH.2 Ondare arkeologikoaren eta historiaurrearen ikerketa eta zabalkundea</b>	<b>8</b>
<b>ZKH.5 Ingurumen Hezkuntza</b>	<b>9</b>
1.5.1. Geoeskolak	9
1.5.2. Nazioarteko Egunak eta publiko orokorrari zuzendutako dibulgazio eta sentsibilizazio eskaintza	9
1.5.3. Lankidetzak	12
<b>2. GEOTURISMOA</b>	<b>13</b>
<b>GE.1 Produktu eta baliabide Geoturistikoak</b>	<b>14</b>
2.1.1. Bisita gidatuen programa	14
2.1.2. Baliabide turistikoak	15
2.1.3. Produktu turistikoen hobekuntza eta berrikuntzak	16
<b>GE.2 Sustapena eta Merkaturatzea</b>	<b>17</b>
2.2.1. Promoziorako materiala	17
2.2.2. Azokak	17
2.2.3. Turismo agenteekin harremana	18
2.2.4. Bisita gidatuen merkaturatze eta salmenta	19
<b>3. LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA</b>	<b>20</b>
<b>LK.1 Ibilbideak eta bidezidorrak diseinatzea</b>	<b>20</b>
<b>LK.5 Natura-ingurunearen eta, oro har, ondarearen babesa eta kontserbazioa</b>	<b>20</b>
<b>4. BERTAKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA</b>	<b>21</b>
<b>BS.2 Lehen sektorea bultzatzea</b>	<b>21</b>
<b>BS.3 Geoparkezaleak</b>	<b>21</b>
<b>BS.4 Geoparkeen astea</b>	<b>23</b>
<b>5. GEOGARAPEN: Komunikazioa, Marketina eta Geoparkearen kudeaketa</b>	<b>28</b>
<b>GKG.1 Proiektuaren gobernantza, antolaketa eta kudeaketa orokorra</b>	<b>28</b>
<b>GKG.3 EGN, GGN, UNESCO eta NAZIO ARTEKO SAREAK</b>	<b>29</b>
<b>GKG.4 Komunikazio estrategikoa</b>	<b>33</b>
5.4.1. Online komunikazioa	33
5.4.2. Offline komunikazioa	34
<b>GKG.5 Marketina</b>	<b>34</b>
<b>Familiarizazio bidaia</b>	<b>37</b>

## **SARRERA**

2023. urtean Geoparkeak turismo arloan izan duen gairik garrantzitsuena NEXT diru laguntzen onarpena izan da, zalantzarik gabe. Geoparkeak Turismo Helmugen Jasangarritasun Plana finantziatzea lortu du eta honek, hurrengo hiru urteetan Deban, Mutrikun eta Zumaian egingo diren azpiegitura turistikoen hobekuntzan eragin zuzena izango du.

Plana exekutatzen denean, Geoparkeko egoera guztiz ezberdina izango da eta turismoarekiko beste posizio batean ipiniko gaitu, natura helmuga aurreratu gisa. Honek, Estatu eta nazioartean oihartzuna izango du eta Gipuzkoa eta Euskadi-Basque Country ere posizionatzen lagunduko du.

Turismo Jasangarritasun Plana Geoparkearen Plan estrategikoarekin bat dator. Azpiegiturretaz gain, naturaren kontserbazioa, ikerketa, hezkuntza eta turismo sektore pribatuekin elkarlana dira lan ildo nagusiak. Jarraiak ikusiko dugun 2023ko jarduera memorian jasotzen den bezala.

## 1. ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

### ZKH.1. Ikerketa eta dibulgazioa Geologia eta Lurraren Zientziak oro har

#### 1.1.1. Biodibertsitatearen gida ilustratua


Geoparkeko biodibertsitatea erakusteko landa-koaderno bat edukitzea da helburua, eta bi fasetan burutuko da lana. 2023an testuak eta ilustrazioak egin dira eta 2024an maketazioa, itzulpena eta inpresioa.



#### 1.1.2. Geologia interesguneen inbentarioa

GIG Inbentarioa 2012. urtean egin zen eta berrikuspen eta eguneraketa bat egiteko premia zuen. Ikerketa eta landa-lana aurretik eginda zegoen eta aurten dokumentua berritu da. 11 GIG berrien fitxak egin dira, testuak, argazkiak etab. Ondorioz, gaur egun gure inbentario berriak 65 interesgune ditu.

Geoparkearen mugakide diren herrien interesguneak ere aztertu eta deskribatu dira, etorkizunean dibulgazio eta geokontserbazio ekimenak sustatzeko asmoz.



### 1.1.3. Ikerketa-programa

Geoparkeak Ikerketa sustatzeko diru laguntzak ateratzen ditu urtero. 2022an, bi urtetako bi proiektu hautatu ziren beraz diru laguntza bi proiektuen artean banatu da bi urte hauetan.

2022an hasi ziren proiektuak aurten bukatu dira:

- *“Diversidad faunística en los ríos del Geoparque: efecto del aislamiento fluvial”*, Aitor Larrañaga UPV/EHU.
- *“Konkrezioak Deba eta Mutrikuko Flysch Beltza Taldean: tipologia, eraketa-mekanismoak eta kontrolak”*, Luis Miguel Agirrezabala UPV/EHU.

Azken ikerketa honekin lotuta, Debako [septarien kontserbaziorako programa bat](#) garatu da Debako Udalarekin elkarlanean. Esku pribatuetan zeuden septariak gureganatu ditugu, beste munduko toki batzuetako septariekin elkartrukatu ditugu eta emaitzarekin [erakusketa txiki bat](#) prestatu da Debako turismo bulegoan.

Septariak ondare geologiko higigarriak dira, Biotopo barruan dagoen azaloramenduan aurkitu daitezke eta beraien balioa eta kontserbazioaren mezua zabaltzea izan da aipatu erakusketaren helburua.



Geoparkean, 2024an ikerketa bultzatzeko diru laguntzak kaleratu dira eta 4 proposamen jaso dira. Orain aztertu egin behar dira eta egokiena aukeratu, urtean zehar lana egin eta urte bukaeran emaitzak ezagutzera emateko.

## 1.1.4. Dibulgarzioa: argitalpenak, formakuntzak

### ARGITALPEN ZIENTIFIKO PROPIOAK

- "IUGS Geological Heritage Sites: the "First 100" a success and now for the "Second 100". Asier Hilarioa<sup>1</sup>, Stanley Finney<sup>b</sup>, Juana Vegasc<sup>1</sup>, Benjamin van Wyk de Vriesd<sup>1</sup>, Jianping Zhang e<sup>1</sup>
- GSA. Geological Society of America annual conference. Pittsburgh. USA.
- "African contribution to the IUGS First 100 Geological Heritage Site"s. Asfawossen Asrata<sup>a,b,\*</sup>, Asier Hilario<sup>c</sup> d Juana Vegas.
- 29th Colloquium of African Geology. Windhoek. Namibia.
- "IUGS Geological Heritage Sites: historical context, criteria and methodology of a new IUGS international program". Asier Hilarioa<sup>1</sup>, Juana Vegasb<sup>1</sup>, Stanley Finney<sup>c</sup>, Enrique Díaz-Martínez<sup>b,\*</sup>, Gonzalo Lozano<sup>b1</sup>, Benjamin van Wyk de Vriesd<sup>1</sup>, Jianping Zhang e<sup>1</sup> and IGCP-731 Project Members.
- "IUGS Geological Heritage Sites: a great opportunity for the international recognition of reference sites for the geological sciences". Benjamin van Wyk de Vriesd<sup>1\*</sup>, Asier Hilarioa<sup>1</sup>, Juana Vegasb<sup>1</sup>, Stanley Finney<sup>c</sup>, Enrique Díaz-Martínez<sup>b,,</sup>, Gonzalo Lozano<sup>b1</sup>, Jianping Zhang e<sup>1</sup> and IGCP-731 Project Members XIth ProGeo International Symposium. Charnwood Forest, UK
- "GGN contribution to the IUGS Geological Heritage Site programme". Asier Hilario 1 & Nickolas Zouros 2. 10th International Conference on UNESCO Global Geoparks. M'Goun UGGp. Morocco

### FORMAKUNTZA, DIBULGAZIOA ETA INTERPRETAZIOA GEOPARKEAN

- EHU-ko ikasleak, UCM-ko ikasleak, Utrecht University-ko geologo taldea eta plus 55 taldearentzako HAB-ko eduki geologikoak azaldu zaizkie.
- Euskarabenturako gazte taldea Geoparkeko ezaugarriak ezagutzera etorri zen.

- Animadeba animazio jaialdiko sarituek Geoparkeko irteera bat egiteko aukera izan zuten.
- Japongo, Shizouka unibertsitateko Kensho Yagi irakaslea turismo iraunkorraren kudeaketa aztertzeraz etorri zen.



## FORMAKUNTZA, DIBULGAZIOA ETA INTERPRETAZIOA GEOPARKETIK KANPO

- “Coastal Geoparks” Master MER Aquarim – UPV/EHU.
- “Euskal Herriko geodibertsitatea” ikastaroa Donostiako Aiete kultur etxean.
- “Fire of love” pelikularen aurkezpena Bilbo eta Iruñan Kutxakzientziak antolatutako ekitaldian.
- “Hondalea, pieces of art from the deep time”. Hondalea eskulturaren aurkezpen ikastaroan parte hartu dugu Aquariumean Flysch-aren inguruko hitzaldi batekin.
- “100 estrellas Geo, para una historia increíble: La Tierra” hitzaldia Amalur jardunaldietan eta ikastaroa Aiete kultur etxean.
- “Memory of the Earth, future for the people” hitzaldia Interpret Europe kongresuan (Errumania online), Thaiandiako geoparkeen bileran (online) eta Baiako jardunaldietan ( Portugal).
- Análisis de los equipamientos didácticos para la enseñanza de la Geología” doktoradutzaren tesiaren epai mahaia. Mondragon unibertsitatea.
- “Pirinioak, mendien ikuskizun geologikoa”. Hitzaldia Aieteko kultur etxean.
- “Geoparques de la UNESCO: paisajes geológicos con una memoria increíble” Bi hitzaldia Ernert Lluch kultur etxean.
- “HAB. Historiaurreko bailara” hitzaldia Eibarren.

## ZKH.2 Ondare arkeologikoaren eta historiaurrearen ikerketa eta zabalkundea

- Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta Xabier Peñalver eta Jose Antonio Mujikaren eskutik, Ermittian bi urteko ikerketa abian jarri dugu, 2023-2024.
- Praileaitzeko ikerketako jarraipena eta indusketetan partaidetza.
- HAB, Historiaurreko bailara proiektuaren koordinazioa, exekuzioa eta inaugurazioa.
- GEOTALKs "Artearen sustraiak" ekitaldia.





## **ZKH.5 Ingurumen Hezkuntza**

Ingurumen heziketa Geoparkearen tresnarik garrantzitsuena da eta horregatik hainbat eta hainbat ekimen burutzen dira urtero, hiru arlo nagusitan banatuta: Geoeskolak, Nazioarteko Egunak eta publiko orokorrari zuzendutako ekintzak edo eta beste eragile batzuekin elkarlanean antolatutakoak.

### **1.5.1. Geoeskolak**

Geoparkearen jardunean txertatu den *Geoeskolak* programa didaktikoaren jarraipena eta koordinazioa egin da. Aurreikusi bezala, 500 ikasle inguru hartu ditu programak eta hurrengo ikasturterako Geoparke kanpoko eskolak ere hartuko dira.

*Hazitik hezi* izeneko programaren bigarren zatia egin dugu, aurreko urtean jasotako haziak ereiten.



Atal honetan aipatzekoa da Euskal Herriko Unibertsitatearekin izandako lankidetzak. Izan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterraren baitan, Zumaiaiko kostaldeko flyscha lantzeko programa didaktikoaren [irakaslearen gidaliburu](#) berria egin da.

### **1.5.2. Nazio arteko Egunak eta publiko orokorrari zuzendutako dibulgazio eta sentsibilizazio eskaintza**

Publiko orokorrari zuzendutako sentsibilizazio jarduera ugari antolatu dira.

- *BIOTOP* izeneko biodibertsitate topaketa egin da Itziarko Lizarreta mendiaren inguruetan bertako ondoak ezagutzeko.



- Otsailaren hasieran hezeguneen nazioarteko eguna ospatu ohi da eta aurten, neguan anfiboak ikusteko dauden zailtasunak ikusirik, irteera apirilera atzeratu genuen. [Txangoan](#), taldeak Arno mendikateko hezegune batzuk ezagutu zituen, Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologia saileko adituak lagunduta. Otsailean, egun honen inguruko informazioa landu eta [sareetan](#) partekatu genuen.

**MUTRIKU**

**TXANGOA**

ARNO MENDILERROKO HEZEGUNEAK

Apirilaren 2an, igandea  
10:00etan  
Olatz Auzoko aparkalekuan

Aranzadi Zientzia Elkartea  
unesco  
Geoparkea

izen-erregistroa  
labur.eus/hezeguneak2023  
949 60 33 78

*Hurbil dituzu, behatu baino ez duzu* goiburuko Geoparkeko hegaztien argazkien erakusketa Mutriku eta Zumaian ez ezik, Gipuzkoako beste hainbat herritan egon da ikusgai: Legazpi, Zizurkil, Soraluze, Azpeitia... eta uda osoan zehar, [Gipuzkoako parketxetan](#) erakutsi da. Guztira, erakusketa 140 egun egon da jendaurrean eta 2500-3000 ikusle inguru izan ditu.



- Gabonetako oporrak baliatuta, sorbeltzen inguruko tailerra egin dugu umeekin Itziarren. *Ongi etorri, hegalaria!* izenpean. Gainera, Itziarko frontoian sorbeltzentzako 10 habia-kutxa jarri dira Itziarko Auzo Udalarekin elkarlanean.



- Hegazti gautarren [entzunaldia](#) Jarduera Debako Ozio basoan egin da Aranzadi Zientzia Elkartetik etorritako adituen eskutik



- Euskal Kostaldeko Museoen hilabetearen baitan, familientzako bisita gidatua eta fosil tailerra antolatu ziren bi asteburutan. Nautilus ikasgunea geologikoa bisitatu eta ondoren gela didaktikoan garatu zen.



- Kutxa Ekogunea Fundazioarekin lankidetzan, **Bihotz Berdeak** programako kide gara eta antolatzen diren irteeretako bat Geoparkean izan da, 12-15 urteko gazteekin flyscha ezagutzera emateko.

### 1.5.3. Lankidetzak

Beste eragile batzuekin elkarlanean honako jarduerak antolatu dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen *GNatZinema* zirkuituan bi saio eskaini genituen Mutrikun. [Martxoaren 24an](#), goizean, herriko eskolentzat, *Barbakana* filma eskaini zen euskarara bikoiztuta eta, arratsaldean, *We the power* dokumentala proiektatu zen publiko orokorrarentzat.
- Itsas Gelaren *Zero zabor uretan* kanpainaren baitan, Mater itsasontzia Mutrikuko portura etorri da. Azaroan, elkarte honek proposatutako ITSAS ZAINZA SAREA proiektuarekin bat egin dugu Geoparkeko hainbat hondartzetan eginiko garbiketan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Zumaiaiko udalarekin elkarlanean Aste Santuko oporraldian hezitzaile bat jarri zen SanTelmo-Algorri parajeen. Bisitari kopurua ondo bideratu, kopurua zenbatu, bertaratutakoei zenbait aholku eta informazio eman eta pilatutako paper eta plastikoak jasotzeaz arduratu zen, besteak beste.

## 2. GEOTURISMOA

Ekoturismoa da Euskal Kostaldeko Geoparkearen [turismo eredua](#). Geoparkeak ondarea ipintzen du bere garapenaren erdigunean, eta kontserbazioa eta dibulgazioa dira garapen horren motorrak. Ondarean oinarritutako errekurtsio eta produktu turistikoak modu iraunkor batean kudeatzea da gure ekoturismo eskaintzaren helburua, Debaren, Mutrikuren eta Zumaiaren garapenerako.

Basquetourrek bultzatutako Kode Etikoaren lehiakortasun programaren barruan dago Geoparkea, 2020az goerotik. Aurten formazio ikastaroa egin da eta kodearekin dugun konpomezua berretsi da, txostenaren bitartez. Ekainean, Gasteizko Europa jauregian ospatu zen [Kode Etikoaren ekitaldian](#) izan zen Geoparkea diploma jasotzen.



Geoparkea, Euskadiko lehen helmuga izan zen Espainiako ekoturismo klubaren partaide izaten bere entitate laguntzaileekin batera. Alde horretatik, norabide berean lan egiten jarraitzen dugu, bai Geoparkean, bai entitate laguntzaileekin ere, *"Bertako garapena eta jasangarritasuna"* atalean zehatzago aipatzen den bezala. Aurten, Valsainen egin zen Ekoturismo Klubaren mintegian izan ginen, lan taldeetan parte hartuz eta Geoparkearen geoturismo kudeaketaren aurkezpena eginez.

Ekoturismoari lotuta, Euskadiko Ekoturismo Foroan ere presentzia izan zuen Geoparkeak, Turismo Helmugen Jasangarritasunerako Planari buruzko aurkezpen bat eginez eta entitate laguntzaileen konpromiso-diploma jasoz.

## **GE.1 Produktu eta baliabide Geoturistikoak**

Geoparkeak eskaintzen dituen geoturismo baliabide eta produktuek bisita gidatuen programa, Geoibilbideak eta interpretazio zentruen eskaintza barne hartzen ditu.

### **2.1.1. Bisita gidatuen programa**

15 bisita gidaturen bitartez Flyscha, Karsta eta bertako kultura interpretatzeko eskaintza zabala daukagu, gida profesional baten bitartez.

Urteko lehen hilabeteetan geoparkeko irteera gidatuen kudeaketaren ereduaren inguruko hausnarketa bat egin zen hiru herrietako turismo teknikariak, alderdi pribatua eta Geogarapeneko teknikariak bertan zirelarik, 2024ko esleipen berriari begira.

Bisitari kopuruari dagokionez, bisitari jaitsiera izan dugu programa ofizialean. Honen arrazoia, helburuen birdefinizio batekin lotuta doa, esfortzuak arrakasta gutxiago duten bisitak sustatzera zuzendu delako.

Enpresa pribatuei eskatu dizkiegun datuen arabera, badakigu partaide kopuruan igoera izan dutela, beraz honekin ondoriozta genezake helmugak izan duen bisitari kopurua ez dela jaitsi, bisitariak kontatzeko modua baizik.

Irteera gidatuetan parte hartzen dutenen asebetetze 956 inkesta jaso dira 2023an eta batez besteko balorazioa 10etik 8.9koa da. Ondoen baloratuta dauden alorrak: jasotako arreta (9.6 puntu), erreserba prozesua (9.2 puntu) eta gidarien azalpenak (9.2 puntu) izan dira.

*Inkesten laburpena*

<b>Baloratutako alorrak (1-10)</b>	<b>Balorazioa 2022</b>	<b>Balorazioa 2023</b>
Iritzi orokorra	8.7	8.9
Erreserba prozesua	9.2	9.2
Gidariaren azalpenak	8.9	9.2
Prezioa	7.7	8.4
Medioen balorazioa	8.2	8.5
Jasotako arreta	9.4	9.6

Urtez urte, bisita gidatuetan hobekuntzak planteatzen dira, giden formakuntza egiten da, materiala berritzen da, eta guzti honek, eragin zuzena du inkesten emaitzekin urtez urte puntuazioa altuagoa izaten baitugu.

Geoparkeak talde eskaerak webguneko talde formularioaren bidez kudeatzen ditu Geoparkearen irudi zabalago bat eskaintzeko asmoarekin. Zerbitzu personalizatua eskaintzen du bisitarako eta ezagutzarako aukera berriak zabalduz, eta bereziki barnealdea sustatuz. Aurten, formularioaren bidez 166 taldek egin dute eskaera.

Aurreko urteetako irizpideak mantenduz, eskolentzat diren irteerak Algorriko Interpretazio Zentrora bideratzen dira, aisialdiko talde irteerak berriz, entitate laguntzaileei bidaltzen zaizkie eta Geoparkeak zuzenean gestionatzen ditu talde espezializatuak eta lurraldea sakonean ezagutzeko edo gestio eredu ezagutzeko interes berezia dutenak.

## 2.1.2. Baliabide turistikoak

Nork bere kabuz egiteko [Geoibilbiden sarea](#) du Geoparkeak, momentuz sei geoibilbidez osatuta dagoena. Geoibilbide bakoitzak mugikorrerako deskargatzeko pdf-a du prestatuta, jarraitu beharreko bidea seinaleztatzeaz gain, interesgune bakoitzeko geologia-, natura- eta kultura-ondarearen azalpenak erakusten ditu, azalpen sinpleen bidez. Baliabide hauek lau hizkuntzetan daude eskuragarri eta 2023. urtean 5.635 deskarga izan dituzte. Turismo bulego eta bisita gidatuetan antzeman dugun bezala, bisitari atzerritar kopurua asko igo da aurten, eta estatukoa zertxobait jaitsi. Geoibilbiden deskargetan ere antzeman daiteke datu hau, ingelesezko eta frantsesezko bertsioak %52 eta %29 gehiago deskargatu baitira, hurrenez hurren.

*Geoibilbideen deskarga kopurua*

	2021	2022	2023	2022-2023
Euskeraz	208	140	117	-%16
Gazteleraz	5646	3793	3351	-%12
Inglesez	103	1196	1543	+%29
Frantsezez	60	411	624	+%52
GUZTIRA	6017	5540	5334	

Zumaian, Algorriko geoibilbidearen barruan (San Telmo baselizatik Algorriko puntara

bidean) Gipuzkoako Foru Aldundiak **pausuen kontagailu** bat du ezarrita. Azpiko taulan ikusi daitezke kontagailuak zenbatutako pausu kopurua. Badakigu hauetako batzuk ibilbide zirkularra eginez behin bakarrik pasatzen direla kontagailutik, eta beste batzuk, aldiz, joan-etorriko bidea egiten dutela. Hala eta guztiz ere, datu interesgarria da, helmuga bisitatzeko duen jende kopuruaz jabetzeko.

*Kontagailuan zenbatutako pausu kopurua*

	2019	2020	2021	2022	2023
<b>PAUSUAK GUZTIRA</b>	220.391	158.852	224.171	216.248	207.619

Geoparkean bi **interpretazio zentro** daude, Algorri interpretazio zentroa (Zumaia) eta Nautilus ikasgune geologikoa (Mutriku). Haez gain, Lasturko auzoan eta Debako turismo bulegoan erakusketa puntuak daude geoparkeko ondarea zabaltzeko.

*Interpretazio zentroyen bisitari kopurua*

	2019	2020	2021	2022	2023
Algorri	19.904	5.033	11.552	14.130	15.606
Nautilus	1.761	964	1.918	1.991	1.753

### 2.1.3. Produktu turistikoan hobekuntza eta berrikuntzak

- Aurten [Flyscha Belaontzian](#) izeneko ekoturismo proposamen turistiko berria martxan jarri da, proba pilotu gisa. Zortzi irteera programatu dira irteera gidatuen programaren barruan. Bisita hau sortzearen zergatia, bisitariari Flyscha modu ekojasangarriago batean eta talde txikietan ezagutzeko aukera ematea izan da.

Bisita hau bisitarien esku jarri aurretik, gidariarekin bisitaren egitura landu zen eta formakuntza eta baliabideak eman zitzaizkion. [Prentsa ohar](#) bitartez eta online komunikazio bidez egin zen bisita honen zabalkundea ([bideo motza](#)) eta erantzun ona izan zuen.





## **GE.2 Sustapena eta Merkaturatzea**

Sustapen eta merkaturatze ekimen garrantzitsuetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Basquetourren eskutik egiten ditugu, Euskadiko helmuga turistikoa erreferentzia izaten saiatuz. Erakundeekin lankidetzan aritzeaz gain, komunikazio atalean ikus daiteke Geoparkeko komunikazio-baliabideak erabiliz turismoaren online eta offline komunikazioa eta marketina sakon lantzen dela egunerokotasunean.

### **2.2.1. Promozioko materiala**

Turismo bulegoetan eta azoketan aurkezteko erabilgarri zegoen materiala berargitaratu dugu, esaterako bisita gidatuen liburuxka. Honez gain, atzerriko bisitarien fluxuaz jakitun izanik, flyer bat argitaratu dugu A5 formatuan atzerriko hizkuntzetako hiztunei eskuragarri duten eskaintza labur-labur erakutsiz. *Euskararen Enigma* bisita gidatuan erabiltzen den liburuxka txikia ere eguneratu da.



### **2.2.2. Azokak**

Gipuzkoa Turismok eta Euskadi Turismok gure helmugaren inguruko informazioa eskaintzen dute Europar ospatzen diren azoka nagusietan, esaterako: Madril, Bartzelona, Berlin, Londresko feria garrantzitsuetan (Fitur, IBTM World, World Travel Market Londres). Erakundeekin esker, gure helmugaren materiala eraman eta promozioa egiten da azoka hauetan. [Geoparkeko ordezkariak Fiturren](#) egon da, alkate eta turismo teknikariek lagundurik.



Bestalde, Espainiako Ekoturismo Klubaren bitartez, azoka espezializatuagoetan ere ordezkatzeko gaituzte, esaterako, Mad Bird Fair, Naturcyl edo Nature Watch topaketetan.

Aste Santuan, [Bilboko Basque Fest azokan egon gara](#) Geoparkeko stand propioarekin. Azoka hau estrategikoa da Geoparkearentzat, izan ere Aste Santuan kanpoko jende asko egoteaz gain, bizkaitar asko gerturatzen da Bilbora eta gertuko turismoa sustatzeko gakoetako bat Bizkaiko bisitariak erakartzea da.



### 2.2.3. Turismo agenteekin harremana

Turismo agente desberdinen artean ezagutzera ematea eta harremanak sustatzea ezinbestekoa da helmuga turistikoko batentzat. Kazetari espezializatuarekin kontaktuan egoten gara informazioa helarazteko eta Geoparkea bisitatzen dutenean beraiekin elkartzen gara gure helmugaren nondik norakoak lehen eskutik aurkeztu eta erakusteko.

Basquetourren bitartez antolatzen diren networking ekitaldi desberdinetan parte hartzen dugu. Horren adibide da, esaterako, parte hartu dugun azken ekitaldia: Meet Basque Country 2023. Geoparkea zazpi enpresarekin kontaktu zuzena izan zuen, izan ere, natura turismoan oso enfokaturik zeuden eta gurean izan ziren eskaintza bertatik bertara ezagutzen. Harez gain, Bilboko topaketan 15 bileratik gora izan genituen tour-operatzaile desberdinekin.

#### **2.2.4. Bisita gidatuen merkaturatze eta salmenta**

Aurrez aipatutako bide guztien bitartez egiten dugu helmuga turistikoaren aurkezpena eta salmenta, bertan egin daitezkeen ekintzen bidez. Gure eskaintza izarra bisita gidatuak izanik, hauen salmentari garrantzi handia ematen zaio geoparkeko komunikazio eta promozio kanpainetan. Bisita gidatuen zabalkundea eta salmenta geoparkea.eus web gunearen bitartez egiten da, batik bat.

Gure webguneaz gain, soyecoturista.com eta Wildsea Europe (Europa mailako ekoturismo esperientzien plataforma) webgunearen bidez ere egiten dugu bisita gidatuen promozioa. Horrez gain, mundu osoan zehar jarduerak, bisitak erreserbatzeko punta-puntako plataforma batzuetan ere bagaude, hala nola, Civitatis, Turismo Vasco eta Get Your Guide. Gure estrategia gure webgunearen bidez salmenta egitea den arren, plataforma hauek gure webgunea iristeko gai ez den tokietara iristen dira publizitatean baliabide asko inbertitzeko aukera dutelako.

Erakundeen bitartez ere, intereseko hainbat pertsona jaso dugu Geoparkean: [Holandako komunikazio-agentzia bateko kazetari](#)iek Tourreko etapak Euskadin zehar egin dituzte bizikletaz, Done Jakue Bideak, [Italia eta Alemaniako hiru kazetari](#) erakarri ditu Geoparkera maiatzean, [Belgikako bi kazetari maiatzean](#), [Alemaniako bost kazetari](#), irailean; besteak beste.

## 3. LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

### LK.1 Ibilbideak eta bidezidorrak diseinatzea

Olazko eta Lasturko georutetako panelak berriztu dira.



*Geoparkeko bira*, Geoparkeari hiru etapetan oinez buelta osoa emango dion ibilbide turistikoaren proposamenena garatu da. Gipuzkoako Mendi federazioaren eskutik, ibilbidea eta seinalaztapena zehaztu da. 2024an gauzatuko dira produktua eta promozioa.

### LK.5 Natura-ingurunearen eta, oro har, ondarearen babesa eta kontserbazioa

Aurten, Arantzamendi mendiaren magaletan 2022. urtean egindako [zuhaitz landaketa](#) osatu da. Lursail hauek itsasertzeko Biotopo Babestuaren eremuan daude, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak dira eta lanok Itziarko Auzo Udalarekin lankidetzan egin dira.



Aurreko urteetan irekitako bidetik jarraituta, 2023an ere Deba eta Zumaia arteko Biotopoen Debako Udalak dituen lursailetan bertako habitatak lehengoratzeko lanak egin dira. Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aldetik, aurretik idatzitako txostena jarraituz beraiei dagokien lanak egin dituzte.

## 4. BERTAKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

### BS.2 Lehen sektorea bultzatzea

Bertako produktuez egidako GeoGourmet otarraren salmentarekin jarraitu dugu. Gero eta gehiago dira opari edo sari moduan erabiltzen duten kirol taldeak. Datorren urtera begira beste produktu batzuk gehitzea aztertuko da.

### BS.3 Geoparkezaleak

Turismoko entitate laguntzaileekin elkarlanean komunitate bat sortu zen 2019an eta hortik aurrera, bilerak, formakuntzak eta ekintza komunak egiten dira entitate laguntzaile diren turismo enpresekin.

Gaur egun, 24 entitate laguntzaile ditu Geoparkeak, alojamendu, jarduera-enpresa eta bidai agentzi hartzaileen artean. Aurten hiru entitate batu berri dira. Bi urtetik behin, Kode Etikoan edo Basquetourrek bultzatzen dituen lehiakortasun programetan oinarritutako ebaluaketak pasatzen dituzte. Entitate kolaboratzaileak gure [webguneko atalean](#) presente daude.

Aurten, lau bilkura izan ditu Geoparkeak bere entitate laguntzaileekin:

- Euskadiko VI. Ekoturismo foroan, entitate laguntzaileek Espainiako ekoturismo klubeko [diploma jaso](#) zuten.
- 2023ko [plangintza bilera](#), Arbe hotelean (Mutriku).
- Geologian [formakuntza bilera](#), Zubeltzutorre agroturismoan (Deba)
- Jarraipen bilera, Santa Klara agroturismoan (Zumaia).



Geoparkearen irudia berritzeak, entitate laguntzaileek irudiaren berritzea ere ekarri du. Honenbestez, logo berria egokitu da beraien webgune eta euskarri fisikoetan erabili dezaten eta logoaren erabileraren manuala ere egin da. Honez gain, irudia indartzearekin jarraituz, enpresen atarian/harreran zuten entitate laguntzailearen plaka berria ere diseinatu da.

Enpresa batzuen eskaeraren ondorioz, aurten egin den ekintza komunitateko bat euskarri amankomun bat sortzea izan da logeletan, gosari-mahaietan, harreretan eta abarretan jartzeko. Kontsultarako euskarri honek, geoparke batean gaudela erakusten du eta geoturismo eskaintza zabala dagoela bertan. Geoparkeko logoa grabatuta duen egurrezko euskarri bat da, eta bertan A5 tamainako informazio orria doa, alde batetik euskeraz eta gaztelaniaz eta beste aldetik, ingelesez eta frantsezez.



## BS.4 Geoparkeen Astea



[Europako Geoparkeen Astea](#)ren 14. edizioa egin da Euskal Kostaldeko Geoparkean, Europan egun dauden geoparke bakoitzak bere lurralde ondare geologikoa, naturala eta kulturala herritarrei gerturatzeko helburuarekin.

Maiatzaren 19an hasi eta maiatzaren 28a bitartean, denetariko ekitaldiak antolatu dira. Aurten bi asteburuetan banatuta proposatu diren ekitaldi desberdinetan adin guztietako ehunka herritarrek parte hartu dute. Geoparkea gertutik ezagutzeko eta bere altxorrak partekatzeko aukera izan dute herritarrek eta bisitariak, Deban, Mutriku zein Zumaian.

- [Egitaraua](#)
- [Argazki galeria](#) (Flickr)

Ekitaldia nagusiak:

- **Geotalks: 'Artearen sustriak'**

*La cueva Cosquer: Una obra maestra en préstamo* film dokumentalaren proiektzioa eta hitzaldi marraztua izan ziren Geotalks ekitaldiaren ardatz nagusiak. Pelikularen ondoren Diego Garate arkeologoak (Kantabriako Unibertsitatea) hitzaldia eman zuen Aritz Pereda ilustratzaileak marrazkiak egiten zituen bitartean.



## - Zazpi hondartza, zazpi bertso

Euskal Kostaldeko Geoparkeak eta Mutrikuko Bertso Eskolak bisita gidatu berezia antolatu dute elkarlanean 'Zazpi Hondartza, Zazpi bertso' bisita. 'Bisita euskaraz egin zen bertsoz girotuta, Mutrikuko Bertso Eskolako kideek bat-bateko lanekin aberastu zituzten bisitaren geldialdi guztiak.





## - Flyscha umeentzat itsasontziz

'Flyscha umeentzat itsasontziz' haurrei zuzendutako ordubeteko itsas irteera gidatu berezia izan da. 4-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta gidak emandako azalpenak eta ekintzak adinari egokitu ziren. Amaieran, haurrak "Geoparkeko zaintzaile" izendatu ziren eta beren diploma jaso zuten.



## - Ekain Abendura tailerra eta marrazki lehiaketako sari banaketa

Urtero, Geoparkeen astearen baitan, marrazki lehiaketa antolatzen da lehen hezkuntzako eskoletan. Aurtengo lehiaketaren helburua *Historiaurreko bailara* proiektua ezagutaraztea eta, irudimenaren eta sormenaren bidez, gazteenek gure kobazuloetan aurkitu den labar-arteari begirada bat ematea izan da. Lehiaketan, Geoparkeko hiru herrietako 600 ikasle baino gehiagok parte hartu dute.

Sari banaketa egiteko Geoparkeak historiaurrera jauzi egin zuen, Deban. Hasteko, haurrek Ekain Abentura taileraz gozatzeko aukera izan zuten udaletxeko arkupeetan. Tailerraren ondoren, marrazki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zen, ziklo bakoitzeko ikasle batek diploma eta kopeta-argia jaso zuten. Sari nagusia aldiz, hirugarren zikloko mutrikuarrak irabazi zuen, Altamira museoko sarrerak eta gau bateko egonaldiaren saria irabazi zituen, bere familiarekin gozatzeko.



## - **HAB: Irteera interpretatua**

Geoparkeen Astearen baitako ekimenik nagusietako bat, Historiaurreko Bailararen (HAB) ibilbidearen bisita gidatu interpretatua izan zen. Goiz osoko irteera gidatua izan zen eta taldeak Debatik Sasiolako begiratokira joan-etorriko ibilbidea egin zuen. Bertaratu ziren 70 lagun inguruk, hainbat adituren eskutik ezagutu zuten ibilbide berria: Aranzadi Zientzia Elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa, eta Euskal Kostaldeko Geoparkeko zuzendari zientifiko Asier Hilario.



## - **Ate irekiak Nautilus museoan**

Mutrikuko Interpretazio Geologiko Zentroan, Nautilusen, material fosil bikainak erakusten dira, guztiak Mutrikuko flysch beltzean jasoak eta Jesus M. Narvaez Amasorrain eta Esperanza Azkarraga senar-emazteek 40 urteko etengabeko lanari esker bildutakoak.

## - **Zumaia-Deba-Zumaia itsasontziz**

Zumaiatik Debara itsasontziz eta Debatik Zumaiara itsasontziz bisita gidatuak eskaini ziren doan herritarrentzat. Bisita hau hautatzearen helburua, Gr-121 Talaiaren bidea sustatzea izan zen, itsasontziz Zumaiatik Debara edo alderantziz joan eta ondoren oinez bueltatzeko.

## - Geoquedada 2023

Estatu mailan antolatzen den geologiaren dibulgatzaileen eta zaleen topaketa da ([ikusi egitaraua](#)). Ekimenak gaur egungo eta etorkizuneko joeren topaketa- eta garapen-ekintza izateko helburua du, baita ezagutza eta geologia arloekin lotutako ekintzen transmisiorako tresna



Geoparkea hiru egun hauen antolakuntzaz arduratu zen, anfitrioi gisa harrera egin zitzaien parte hartzaileei, Asier Hilariok hitzaldi bat eskaini zien eta landa irteera ere eskaini zitzaien oinez zein itsasontzi ibilbidea eginez. Komunikazioaren arloan ere indar handia egin zen Geoparketik, sare sozialen kudeaketan eta zehazki Twitterren.

## 5. GEOGARAPEN: Komunikazioa , Marketina eta Geoparkearen kudeaketa

### GKG.1 Proiektuaren gobernantza, antolaketa eta kudeaketa orokorra

2023an lan-taldea mantendu da, bai lanpostuak, baita lankidetzak ere. Staff lantalderako komunikazio arduradun bat kontratatu da, beraz aurten kanpo kontratarazio izatetik staff izatera pasatu da lanpostu hau.

**Geogarapeneko lantaldea:** langile propioak

- **Gerentziak** bere gain hartu ditu Geoparkearen kudeaketa eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sarean (EGN/GGN) eta CNEGen (Geoparkeen Espainiako Batzordea) ordezkagarritasuneko funtzioak. 2023an gainera, Ekoturismo klubeko zuzendaritza batzordeko kide da eta Espainiako Foroko koordinazio taldeko idazkari.
- **Turismo teknikaria:** arloaren kudeaketa orokorraz arduratzen da, bereziki irteera gidatuen kudeaketaz.
- **Komunikazio arduraduna:** barne zein kanpo komunikazioa, prentsa-oharrak, webgunea.

Kanpo asistentziak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitu du, EGN eta GGNren ordezkari izatearekin batera, Deba – Zumaia Biotopoaren zuzendari zientifikoa da. Horrez gain, IUGSko (Unión Internacional de Geociencias) ondare geologikoaren batzordearen koordinatzailea, International Geoscience Programeko (ÍGCP) batzorde zientifikoko kidea, EGNko, Advisory Committeeko kidea, GGNko Executive Committeeko kidea eta UNESCO Global Geopark Council IUGSeko ordezkaria ere bada.

- **Community manager** (sare sozialen kudeatzailea) @Geoparkea estrategia Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan. Hau ere aurreko urteetako mailetan mantendu da.
- **Ingurumena eta iraunkortasun koordinatzailea**, Naturagune Babestuetako (ENP) jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko.
- **Kontabilitate- eta lege-aholkularitza** erakundearen eguneroko kudeaketarako.

### **GKG.3 EGN, GGN, UNESCO eta NAZIOARTEKO SAREAK**

Euskal Kostaldeko Geoparkea, Unescoren beste geoparkeak bezala, Europako eta Munduko Sareetako kide da. Aurten, udaberriko hitzordua **Hateg Geoparkean** (Errumania) izan da eta udazkenekoa berriz, [M'goun Geoparkean](#) (Marrakech).



UNESCO GLOBAL GEOPARKS ( GGN – UGGp).

Geoparke berrien ondare geologikoa baloratu ahal izateko metodologia berria landu eta onartu da. UNESCO-kok antolatuta metodologia hau munduko geoparke guztiei azaltzeko aukera izan dugu, ondare geologikoan gure erreferentzialtasuna indartuz.

2023 urtean hainbat geoparke proiektuekin egon gara kontaktuan gure laguntza eta aholkularitza eskaintzeko:

- Volcanes de Calatrava (Ciudad Real)
- Cabo Ortegal (Galizia)
- Nevado del Ruiz (Kolonbia)
- Pillan Mapu (Txile)
- Bagh dinosaurs (India)
- Mixteca Alta (Mexiko)

Beste Geoparke batzuen bisita ere jaso dugu, gure eredia ezagutzera emateko.

- Grutas del Palacio UGGp Geoparkeko ordezkariaren bisitaren antolakuntza eta elkarlanerako gaien azterketa (ikus albistea).
- Odsherred UGGp-eko ordezkarien bisitaren antolakuntza eta azalpenak. Abuztua



Geoparkeko bi ordezkari ofizialek beste geoparke batzuk ebaluatzen dituzte, aurtan “Colca y volcanes de Andagua” Geoparkea (Peru) eta Meteora-Pyli Geoparkea (Grezia). Horretarako UNESCO ebaluatzaileentzako ikastaroan parte hartu genuen.

## INTERNATIONAL UNION OF GEOLOGICAL SCIENCES

- IUGSko Batzorde Exekutiboaren bileran parte hartu genuen Belfast-en munduko elkarte geologiko nagusien ordezkariekin batera.
- THE SECOND 100 proiektuaren koordinazioa orokorra. <https://iugs-geoheritage.org/the-second-100-iugs-geological-heritage-sites/>
- III SEMINAR ON STONE HERITAGE. Antolakuntza eta IUGS ordezkarietza Indian.

# GEOPARKEA

EUSKAL KOSTALDEA · COSTA VASCA



## IGCP. INTERNATIONAL GEOSCIENCE PROGRAM

- IUGS eta UNESCO-ren International Geoscience Program-eko batzar zientifikoaren kide bezala 2 proiektu baloratu dira 2022 deialdirako.
- IGCP 731: IUGS Geological Heritage Sites Proiektuaren zuzendaritza orokorra.

## ESPANIAKO GEOPARKEEN FOROA

Estatu mailan ere geoparkeok Espainiako Geoparkeen Foroan antolatzen gara, birtualki hainbat bilera izaten ditugu eta [aurten aurrez aurreko bakarra](#) izan dugu, Montañas do Courel Geoparkean (Lugo). Foroaren bileraz gain, Jardunaldi Irekiak antolatzen dira bertako herritar eta enpresei zuzenduta.



- Geoparkeen Elkartearen estatutuak landu eta adostu dira, datorren urtera begira Elkarteen erregistroan izena emateko.
- Fiturren. GGNko 20. urteurrenarekin batera, Geoparkeen standa ipini dugu.
- Geoparques.es webgune berrirako storytelling geologikoaren lanketa Kevin Kinzakara geologoaren Master amaierako lana koordinatuz.
- “Hablemos de Geoparques” jardunaldian parte hartu genuen.





## **GKG.4 Komunikazio estrategikoa**

Geoparkearentzat komunikazioa lehentasunezko gaia da eta horren harira bi erabaki estrategiko hartu dira aurten, eta baita gauzatu ere.

Batetik, Komunikazio eta Marketin Saila indartu da **langile bat lanaldi osoan** kontratatu da, otsailean. Bestetik, **irudi-marka** berri da eta logotipo berria sortu, pausoka material guztiak eguneratuko dira.

### **5.4.1. Online komunikazioa**

- Geoparkeko webgunea:
  - Guztira, 29 albiste kaleratu dira, [webguneko aktualitatea](#) atalean.
  - [Irudi-marka berria](#) aplikatu da.
  - Webguneko erreserba sistemaren hobekuntzak egin dira: blogaren sorrera, erreserba sistemaren hobekuntza eta webguneko diseinuari lotutakoak, besteak beste.
  - [Blog berria](#) sortu da. Euskal Kostaldeko Geoparkeari buruzko informazioa, bertan gozatzeko planak, ezohiko lekuak, tradizio paregabeak eta bertako naturari eta geologiari buruzko bitxikeriak deskubritu daitezke blogaren bitartez. [Ikusi Blog](#)-a.
  - HAB-Histoiareko bailara [azpiatala](#) gehitu da.
- Espainiako Geoparkeen webgunea ([geoparques.es](http://geoparques.es)) euskaratu egin da.
- Zazpi newsletterren bidalketa egin dira: [Europako Geoparkeen Astea](#), [Blog berria](#), [Hegazti gautarrak behatzeko tailerra](#), [Arnoko hezeguneetara irteera](#)..
- Sare sozialetan gure presentzia indartzen jarraitzen da, eta kudeatzen diren hiru sareetan (Twitter, Facebook eta Instagram) 16.500 jarraitzaile baino gehiagoko komunitate birtuala dugu inguruan.

## 5.4.2. Offline komunikazioa

- 22 prentsa ohar bidali dira
- 11 irrati elkarrizketa, besteak beste, Onda Vasca, Cadena Ser, Radio Euskadi eta Euskadi Irratia, Arrate eta Naiz irratietan. Euskadi Irratian “La Mecánica del Caracol” programarekin kolaboratu da hainbat momentutan.
- Agerraldi bat telebistan, EITB albistegietan (euskaraz eta gaztelaniaz) Marrakexen lurrikararen harira.
- Discovery channel-ekin grabaketa egin da azaroan, “Curiosidades de la Tierra” programarako.
- Diario Vasco azalean agertu zen Geoparkea, Debatik Itziarrerako igokeran Frantziako Tourra pasa zenean.

## GKG.5 Marketina

2022an garatutako marketin planean oinarrituta ondorengo arloan landu dira 2023an zehar.



## 5.1. Errepideetako seinaleztapena

Bai errepideetako eta bai interesguneetako seinaleztapena indartzea estrategikoa da. Aurten errepideetakoak indartu dira A8an, N634 eta señale direkzioalak. Datorren urteari begira interesguneak seinaleztatuko dira, bisitariarengan presentzia indartuz.

## 5.2. Materiala

- Merchandising elementu berriak egin dira, Geoparkeko irudia indartzeko. Alde batetik, bisita gidatu eta interpretazio zentroetako gidarientzako txalekoak egin dira eta turismo bulegoetako langileentzako kamisetak. Bestetik, udazkenerako aterkiak egin dira turismo bulegoetan salgai daudenak.
- Roll-up berria egin da ekitaldi desberdinetan Geoparkearen presentzia nabarmentzeko.

## 5.3. Publizitatea

Geoparkeko baliabide turistikoak eta bisita gidatuak ezagutzera emateko kanpainak egin ditugu ondorengoko hedabideetan:

- Donostia aldizkaria
- SudOuest egunkarian iragarkiak paperean eta bannerrak online
- Hamaika TB: iragarkia
- Onda Vasca: irratirako kuñak
- El Correo: online iragarkia
- dBus: autobusetako pantailetan jartzeko bideo-iragarkia
- FICOBako pantaila handian bideo-iragarkia
- Donosticup: Donosticup webgunean, [Jardueren atalean](#) geoparkeko bisita gidatuen informazioa jarri zen egun horietan Donostian izango ziren bisitariei bideratuta eta sare sozialen bidez bisita gidatuak egiteko hiru bonu bikoitz zozkatu ziren

## 5.4. Akordioak

Zumaiako Baleike tokiko hedabidearekin akordioa berritu dugu eta ondorioz, UKT zerbitzu gidan presentzia du Geoparkeak.

Beste urte batez, BERRIAlagun akordioa berritu dugu, euskal hedabideekiko Geoparkearen konpromisoa berresteko. Bestalde, Hitza-Atariarekin ere truke hitzarmena izaten jarraitu dugu, bisita gidatuen zozketa eskualde desberdinetan publizitatearen truke.

Kirol ekitaldien bitarteko promozioa: Gipuzkoa Basket taldearen irudia Geoparkeko Flyscha da, [denboraldiko aurkezpena](#) Zumaian egin zuten aurtengo ekipamendua erakusteko.

Beste urte batzuetan bezala hurrengo hauek ere babestu ditugu:

- Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia (Deban).
- Lasturko mendi martxa, Geoparkeko Karstaren Bira (Deban). Urtero bezala, Martxoan Lasturko Martxa antolatu dute “Geoparkeko Karstari bira” lelopean. Geoparkeak partaideei ibilbidean topatutako interesguneen informazioa emateko mapa sortu eta inprimatu da.
- Beduolaren bitartez antolatu zen Batelero Egunean, antolakuntzan laguntza eman genuen, Arrietakua bisita gidatua eskaini zitzaizen itsasontzietako patroiei eta sarietan laguntza eman zen.



## Familiarizazio bidaia

Azaroan, Villuercas-Ibores-Jara Geoparkera familiarizazio bidaia antolatu zen. Las Loras Geoparkearekin elkarlanean antolatu zen bidaia, hala hiru geoparke elkartu ginen Caceresen. Hiru egunez Villuercas-Ibores-Jara Geoparkeko antolatzeko era eta -turismo, -ingurumen eta -hezkuntza eskaintza ezagutzeko eta nork bere esperientziak partekatzeko aukera izan zen.

Euskal Kostaldeko Geoparketik 18 lagunez osatutako delegazioa izan zen bertan, alkateak, teknikariak eta enpresa pribatuak tartean.

